

JUSTIZIA

Lantzeko garaia

Berriz elkartzeko garaia da, irailak dakarren energia partekatzeko garaia, **2024-2025 ikasturtea ilusioz besarkatzeko garaia**. Egiten dugunarekin eta garenarekin dugun konpromisoa berresteko unea da hau, gidatzen gaituen bokazioa aitortuz eta salletar familia handiko kide izatearen harrotasuna sentituz.

Aurtengo gure leloa "**Justizia lantzeko garaia**" da. Ilusio handiz inauguratu dugun ikasturte honek funtsezko balioetan sakontzea nahi dugu, hala nola **pertsona guztiekiko eta inguratzen gaituen guztiarekiko errespetuan, denon etxea eta bertako biztanle bakoitza zaintzearen garrantzian**, eta benetan axola duenari eskainitako denboraren balioan. Horrela, bide berriak jorratzen jarraituko dugu, gizartea eraikitzeko berdintasun, errespetu, enpatia, aniztasun eta senidetasun hitz hutsak baino gehiago, bizi izandako errealitatea izan daitezen.

Ikasturte honetako kanpaina Garapen Iraunkorrerako 12. Helburuan oinarritzen da, eta, bereziki, nekazaritzako estraktibismoaren arazo kezkarria. Erauzketa-prozesuak gizarte- eta ingurumen-arazo bihurtu dira, eta ia munduko txoko guztiei eragiten die. Latinoamerikan, adibide ugari daude: petrolioia Ekuadorreko Amazonian ateratzea, sojaren monolaborantza Brasilgo erdialdeko sabanetan, megamineria Txilen eta fracking bidez hidrokarburoen ustiapena Argentinako Patagonian.

Aurtengo kanpaina, **PRODESSAekin batera gauzatzen dugun Guatemalako emakume indigenen proiektuan dago oinarritua**. Proiektu hau adibide zehatz bat da tokiko komunitateak, eta bereziki emakume indigenak, gizarte- eta ingurumen-justiziaren aldeko borrokaren buru direla erakusteko. Haien lanaren bidez, justizia oinarritik landu daitekeela erakusten digute, estraktibismoek planteatzen dituzten erronkei aurre eginez eta garapen jasangarri eta ekitatiboa sustatuz.

Beraz, sar gaitzen hurrengo hilabeteetan biziko dugun abentura berri honetan! Ziur gaude garai zirrargarria izango dela, erronkaz betea, baina espero dugu, baita ere, zailtasunak zailtasun, ez dagoela lortu ezingo dugun helmugarik. Eta gogoratu, **zaintzeko garaia, sortzeko garaia** da!

Salletar GGKEak

